

# URAK eroritako horma bat kendu, eta Zankueta erreka-aren ibaiertzeko zati bat zaharberritu du Amurrioko Larrinbe auzoan

- Ibai-tarte garai eta bideratu batean: malda handiak sendotutako emariaren indarrak harlangaitzeko horma bat ibilgura lerrarazi baitzuen
- 20.000 euroko, gehi BEZa, inbertsioa izan du jarduerak

URA-Uraren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoak, Zankueta errekatik eroritako horma bat kendu du Amurrioko Larrinbe auzoan eta ondorioz higatutako ibaiertz-tarte bat zaharberritu du.

Nerbioi ibaian isurtzen den Zankueta erreka, Larrinbe auzotik igarotzean, oso mehartuta dagoen eta malda handia duen ibilgu bat da. Ibilguaren baldintza horien ondorioz, uholde-uriteen gertaeraren batean, ezker aldean eraikitako harlangaitzeko horma bat hondatu zen, auzo horretako 9. zenbakiko baserriaren ondoan.

Ibaiertza sendotzea eta hondakinak ibilgutik kentzea izan da jarduketaren helburua. Lehenik eta behin, ibilgu-hondora eroritako horma kendu da; ondoren, ezpondaren oinarria gabioi zurrun batez (harriz betetako hesi-kaxa bat) egonkortu da; azkenik, betelan txiki bat egin da gabioi horretatik, baserriaren behe-ko-teraino, eta, gero, koko-manta batez babestu da: eremu horretan, ibaiertzeko espezieak landatzeko.

Ezponda landareztatzeke, sahats (*Salix atrocinerea* eta *S. eleagnos*) eta zuhandor (*Cornus sanguinea*) aldaxkak erabili dira, lehengoratu beharreko eremutik gertu dauden zuhaitz-banakoetatik.

**Proiektu honek Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) finantzaketa du.**

**2021.06.02.**